

Ortodoxoak

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-02: 2.

Lehendabizi, Krezioan bezala, Greziako kultura izan zen, eta bereziki herri honen hizkuntza, grekera; gero, mendebaldeko kulturaren oinarri honek Erromako latinean jarri zituen sustraietako bat da "Ortodoxoa-ren" kontzeptua: "Zientzia edo sinesmen baten oinarri eztaba daezina", eta hemendik dator Eliza Katolikoak erakusten zuen oinarrizko dogma sinetsi beharra.

Ortodoxoak sortu ziren, beraz, aurren.

Eta ondoren, gure artean askotan aipatzen diren Heterodoxoak, herejeak: dogma horren funtsezko zerbait ukatzen zutenak.

Hemen ez naiz orain erlijioaz ari; gai honetatik beste dogma askotara pasa baita zentzua: geure eguneroko ogia den politikara eta abertzaletasunera, hizkuntzara eta ortografiara.

Diferentzia handi batekin, halere: lehen heterodoxoak, herejeak, erre egiten zituzten, eta gaur ez.

Gaur askotan goraiatu ere egiten dira burdinezko zapatetan bere oinak sartu nahi ez dituztenak, zeren eta esaten bait dute oinak ibiltzeko eginak izan zirela krezioaz gero, eta kanoiak egiteko erabili izan den burdinarekin ezin dela pauso asko eman; askatasuna du ikuspuntu honek, aitzakia; baina ez da bakarra, zeren eta osasunaren eta finkotasunaren sostengua beharrezkoa denez, burdin honen faltan edozein hondartzetako areetan jartzen dituzte alfer edo gaizkile batzuk beren idealen fundazioak.

Egunkari batean esate baterako.

Ez bait dago gaur fidatzerik ere euskalduna eta hain diru-funts ahulak dituenen.